

NUBA, SOL ETA DARIA IPUINAREKIN EGITEKO JARDUERAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukiak

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1., 2., 3. eta 4. blokeak

Inguruaren ezagutza: 2. blokea

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena: 1., 3. eta 4. blokeak

IRAKURKETA-FITXA: NUBA, SOL ETA DARIA

Beharke dugun materiala

Nuba, Sol eta Daria ipuina. ([bideoa](#))

Aurretiazko oharra

Ipuin honen ardatza ez da ingurumena, hasiera batean hori eman badezake ere. Ipuinaren bidez elkartasuna, inplikazioa eta konpromisoa lantzea da gure asmoa.

Ipuinean hainbat sinbolo agertzen dira, eta hementxe dituzue haien esanahiak, horrela hobeto ulertuko baituzue edukia. Ez da beharrezkoa haurrek halako sakontasunarekin ulertzea, beharbada konplexuegia izan baitaiteke haientzat.

- **Iparraldeko Basoa:** gizarterik aberatsenak sinbolizatzen ditu; hots, herrialde garatuak edo Iparraldeko herrialdeak.
- **Basamortu Marroia:** pobrezia sinbolizatzen du; baina, batez ere, herrialde behartsuetakoa edo Hegoaldeko herrialdeetakoa. Dena den, herrialde horietan ez ezik, beste hainbat eta hainbat lekutan ere badago pobrezia. Horregatik, landareentzat basamortua zabaltzen joatea bezain arriskutsua da guretzat pobrezia zabaltzen joatea.
- **Ura:** gure bizitza hobetzen duten baliabide guztiak sinbolizatzen ditu (elikagaiak, sendagaiak, ezagutza, ondasunak, dirua eta abar).
- **Nuba:** alde batetik, bidegabekeriaren aurka borrokatzen den pertsona bat da; baina, bestetik, Manos Unidas bezalako erakundeak ere sinbolizatzen ditu, arduratzen baitira Hegoaldeko herrialdeei baliabideak emateaz (ipuinean, «ura» eramatea) eta Iparraldeko herrialdeetako jendea sentsibilizatzeaz (ipuinean, beste hodeiak bat egiteko konbentzitzea).
- **Sol eta Daria:** basamortuko landareek herrialde behartsuetako biztanleak sinbolizatzen dituzte; Hegoaldeko herrialdeetakoak, bereziki. Ez dira ezer egin gabe geratzen, kanpoko laguntza noiz iritsiko zain; aitzitik, ingurunera egokitzen dira, duintasunez bizitzeko modua bilatzen dute, modua aktiboan egiten diete aurre beren beharrei, eta «ura etortzen denerako» prestatzen dira. Hori, ipuinean, ura aprobetxatzeko sortu duten sustrai-egiturak sinbolizatzen du. Elementu hori funtsezkoa da, eta berezkoa dute Manos Unidas erakundearen tokiko

bazkideek, haiek prestatzen eta diseinatzen baitituzte erakundeak finantzatzen dituen proiektuak.

Garapena

- Irakurri neska-mutilei *Nuba, Sol eta Daria* ipuina. Nahi izanez gero, ipuina irakurri ondoren, galderatxo batzuk egin, istorioa ondo ulertu dutela ziurtatzeko. Irakurri esaldi hauek banan-banan, eta bakoitza irakurri ondoren neska-mutilek esan dezatela egia edo gezurra den.
 - Nuba ozeanoaren gainean bizi zen hodei bat zen.
 - Baso handi bat ureztatzen zuen.
 - Egun batean, basamortura joan zen, aspaldiko lagun bat bisitatzerara.
 - Basamortuan, bi landare aurkitu zituen.
 - Landareak galduta zeuden eta ez zekiten basamortuan nola bizi.
 - Nubak, laguntzeko, ura eraman zien.
 - Beste hodei guztiak hasieratik prest egon ziren basamortuko landareak ureztatzen laguntzeko.
 - Zuhaitz zaharrak esan zien ez laguntzeko landareei.

Hausnarketa

- Ipuina irakurri edo bideoa ikusi ondoren, eta edukia ondo ulertu dutela ziurtatuta, hausnartu neska-mutilekin, honelako galderak eginez:
 - Zein zen Nubaren eta beste hodeien eginkizuna?
 - Zergatik zen arriskutsua Basamortu Marroia?
 - Zergatik joan zen Nuba basamortura?
 - Nor bizi zen basamortuan? Gogoratzen al dituzue haien izenak?
 - Sol eta Daria gai al ziren basamortuan ur gutxirekin bizitzeko?
 - Zer eskatu zioten Nubari?
 - Lagundu al zien Nubak Soli eta Dariari?
 - Zer gertatu zen basamortuan Nubaren laguntzari esker?
 - Beste hodeiak haserretu egin al ziren Nubak basamortuko landareei laguntzen ziela jakitean? Zergatik haserretu ziren?
 - Bidezkoa al zen ura Iparraldeko Basoa ureztatzeko bakarrik erabiltzea?
 - Nubak gainerako hodeiak konbentzitu izan ez balitu, lortuko al zuen basamortuko landareei laguntzea eta Basamortu Marroia geldiaraztea?
- Esan neska-mutilei ipuinetik gehien gustatu zaien pertsonaiaren marrazki bat egiteko.
- Marrazkiak, gero, ikasgelako paretan zintzilikatu. Haur bakoitza banan-banan joango da bere marrazkia zintzilikatzera, eta azalduko du zein pertsonaia aukeratu duen eta zergatik.



NUBA, SOL ETA DARIA

Iparraldeko Basoa oso ezaguna zen, zuhaitzik handienak eta lorerik politenak hantxe zeudelako.

Hodei batzuk egunero-egunero joaten ziren basoa beren ur tantekin ureztatzen. Horrela, basoak aurre egiten zion Basamortu Marroiari, basamortuak irentsi egiten baitzuen bidean topatzen zuen landare eta zuhaitz oro.

Hodei horietako bat Nuba zen. Basoko bazter guztiak ezagutzen zituen!

Baina inoiz ez zen Basamortu Marroiara joan. Oso arriskutsua zela esaten zuten, eta hodeiak lehortu eta desagertu egiten zirela bertara iritsi orduko. Baina, egun batean, hara joatea erabaki zuen, nolakoa zen ikustera.

Basamortuan hondarra besterik ez zegoen, eta sekulako beroa egiten zuen. Nuba izerdi-patsetan zegoen. Beldurtu egin zen.

Halako batean, ahots bat entzun zuen:

—E, kaixo!

Nubak lurrera begiratu zuen, baina ez zuen inor ikusi.

—Kaixo! Hemen gaude! Hemen behean!

Bi landare txiki ikusi zituen. Bakoitzak hiru hosto besterik ez zeuzkan.

Nuba haiengana hurbildu zen. Solek, landare handienak, esan zion:

—Hodeiak oso gutxitan etortzen dira hona. Zertan zabilta zu hemen?

—Basamortu Marroia nolakoa den ikustera etorri naiz, eta esaten dutena egia den jakitera —esan zuen Nubak.

—Zer esaten dute ba? —galdetu zion Dariak, landare txikiak.

—Ba oso leku beroa dela, eta inor ezin dela bertan bizi, dena lehortu egiten delako.

—Jajaja! Ba gu hemen bizi gara, eta ez gara lehortu!

Basamortuko landareak bereziak zirela ikusi zuen Nubak, euri tantak beren hostoetan gordetzen zituztelako.

—Aspaldi honetan ez da hodeirik etorri inguru honetara, eta dagoeneko oso ur gutxi gelditzen zaigu. Ur pixka batekin nahikoa genuke bizitzen jarraitzeko —esan zuen Dariak.

—Sentitzen dut, baina ezin dizuet urik eman. Iparraldeko Basora eramane behar ditut tanta guztiak —esan zien Nubak.

—Baina Iparraldeko Basoak ur asko jasotzen du, eta guk tanta batzuk besterik ez ditugu behar —esan zuen Solek.

—Tira, saiatuko naiz ba. Bihar itzuliko naiz! —esan zien Nubak.

Nuba pentsakor joan zen etxera, eta Soli eta Dariari lagundu egingo ziela erabaki zuen.

Hurrengo egunean, ur tanta batzuk gorde, eta Basamortu Marroiara itzuli zen. Hara iristean, bi landareen gainean askatu zituen ur tantak.

—Eskerrik asko, Nuba! —esan zioten bi landareek poz-pezik. Hurrengo egunetan ere, basamortura joan zen Nuba, bi landaretxoei ur pixka bat eramatera.

Egun batean, esnatu zirenean, Solek eta Dariak sekulako sorpresa hartu zuten: asko hazi ziren haiek biak, eta, gainera, landaretxo pila bat jaio zen beren inguruan!

Baina Nubaren herriko hodei bat, Hodeitzar izenekoa, konturatu egin zen gertatutakoaz, eta haserre bizian jarri zen:

—Nuba, gu engainatzen zabilta! Tantak zuretzat gordetzen dituzu!

—oihukatu zion Nubari.

—Egia da egunotan tanta batzuk gordetzen ibili naizela, baina ez dira niretzat, laguntza behar duten bi landararentzat baizik —esan zuen Nubak.

—Hemen, Iparraldeko Basoan, ez dago laguntza behar duen landararik, guk oso ondo egiten dugulako gure lana eta denei ematen diegulako ura! —esan zuen Hodeitzarrek.

—Baina landare horiek ez dira gure basoan bizi, Basamortu Marroian baizik —esan zuen Nubak.

—Basamortu Marroian bizi direla? Baina nolatan joan zara hara?

Nubak, orduan, ikusitako guztia kontatu zien, eta Basamortu Marroiko landareek laguntza behar zutela esan zien.

—Baina hori ez da gure arazoa —esan zuen Hodeitzarrek—. Guk gure landareez bakarrik arduratu behar dugu.

—Oker zaude —esan zion Nubak—; gure arazoa ere bada. Basamortu Marroia etengabe ari da aurrera egiten, eta, ezer egiten ez badugu, hil egingo dira hango landare guztiak. Elkartasunez jokatu behar dugu.

—Elkartasunez jokatu behar dugula? Zer esan nahi du horrek?

—galdetu zuen Hodeitzarrek.

—Ba ezin dugula ur guztia gure basoa ureztatzeko erabili, beste landare batzuk hiltzen ari diren bitartean. Laguntzen badiegu, gero eta landare gehiago egongo dira basamortuan; eta, basamortua landarez betetzen bada, jada ez da basamortua izango! Nahikoa ur badago denentzat; dagoena ondo banatu behar dugu, besterik ez. Hori da elkartasunez jokatzea.

Hasieran, hodei gutxi batzuek bakarrik egin zuten bat Nubarekin, baina, pixkanaka, gero eta gehiago jarri ziren bere alde.

Basamortu Marroiak aurrera egin nahian jarraitzen du, bidean topatzen dituen landare eta zuhaitz guztiak irentsiz, baina, hodei guztien elkartasunari esker, ez du aurrera egingo.